

**2008ko IRAILAREN 4an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko irailaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
 - 2008ko uztailaren 3an ospatutako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Aiztondo klasikoa batzordeari V. Klasikoa antolatzeko emandako dirulaguntzaren kitapena onestu, hala bada.
4. Larraulgo kultur etxea egiteagatik jarritako abala itzultzeko espedientearen hasera, Construcciones Trati.
5. Fakturak eta ordainketak.
6. Beste batzuk.
7. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2008 urteko uztailaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

13/2008 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 15koa, 30 m³tik pasatzen diren zergadunen 2008ko 1.hiruhilabeteari dagokion ur erreziboen erroldaren 1 eranskina onartzea ebazten duena.

14/2008 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 17koa, 2008ko 2.hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onartzea ebazten duena.

15/2008 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 22koa, Larraulgo Udalak kutxan duen 0000089276 kontu korrontetik 10.000,00 eurotako diru ekarpena egitea Festatako Batzordearen izenean dagoen kontura, 2008 ko San Esteban eta San Bartolome jaiak antolatzeke ebazten duena.

16/2008 Alkatetza Ebazpena, irailaren 2koa, Imanol Polo de Leiva jaunari Larraulgo Udaleko Biztanleen Erroldan baja ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
AIZTONDO KLASIKOA BATZORDEARI V. KLASIKOA ANTOLATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, V. Klasikoa antolatu ondoren, emandako diru-laguntzaren kitapena prestatu dutela, Larraulgo Udalarari 23,46 eroko diru-kopurua bueltatzea onestu delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak V. Klasikoa antolatu ondoren egindako kitapena onestu, Larraulgo Udalak 23,46 eurotako diru-kopurua jasoko duelarik.

LAUGARREN PUNTUA
LARRAULGO KULTUR ETXEA EGITEAGATIK JARRITAKO ABALA ITZULTZEKO ESPEDIENTEAREN HASERA, CONSTRUCCIONES TRATI

Ikusirik 2008ko urtarrilaren 22an Construcciones Trati S.L. baltzuak eginiko eskaera, non , Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitateko urbanizazioa egoki mantentzeko eta bertan eraikiko duen Kultur Zentru Balionanitzeko lanak egoki bermatzeko jarritako 89.452,77 eurotako fidantzaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Construcciones Trati S.L. baltzuak Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitateko urbanizazioa eta bertan eraikitako Kultur Zentru Balionanitzeko lanak egoki bermatzeko jarritako 89.452,77 eurotako fidantzaren itzulera bueltatzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KOLDO JAUREGUI	226,20
MANUEL LARRAMENDI BAZKUNA	162,40
PATXI CARNES URIBEETXEBERRIA	1.693,60
XABIER MUJICA	457,91
EBA ERKIZIA BRION	205,30
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	113,64
TELEFONICA	25,98
TELEFONICA	77,27
EUSKALTEL	152,36
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	274,65
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	844,36
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	122,03
GOIATZ	1.616,23
ARGITU ASESORES	193,49
JOKIN IRAOLA	4.593,60
JOKIN IRAOLA	3.823,36
KIROLZER	119,85
BABESA SUZAI, S.A.	77,06
IBERDROLA	41,73
IBERDROLA	124,82

IBERDROLA	70,26
IBERDROLA	29,20
IBERDROLA	123,80
IBERDROLA	110,42
IBERDROLA	218,03
IBERDROLA	70,74
BERRI LANTEGIA,S.L.	91,78
IBERDROLA	239,38
IBERDROLA	69,39
KIROLZER	119,85
KIROLZER	119,85
EUSKALTEL	136,10
TELEFONICA	23,73
TELEFONICA	90,20
TELEFONICA	21,05
TELEFONICA	16,21
BABESA SUZAI	141,36
UROLA TUBOS	104,26
EBA ERKIZIA BRION	1.937,32
GOIKOETXEA ALBISU S.L.	36,23
BERRI LANTEGIA, S.L.	134,50
FERRETERIA BARBE, S.L.	47,08
REPSOLGAS	19,69
REPSOLGAS	31,44
ULAHI	741,05
MRW	10,97
IZFE	1.572,61
GALPARSORO	92,57
ARGITU ASESORES	105,68
REPSOLGAS	19,69
SERMICRO	2.044,62
IZFE	40,23
IZFE	374,91
IZFE	374,91
DISTRIBUCIONES LOPETEGI, S.L.	217,56
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	5.702,78
JOXAN ALTUNA	258,94

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **30.520,44** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

6.1. EUSKO JAURLARITZAKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariak igorri duen idatzia non dioen, jaso dutela 364155 intzidentzia-zenbakia duen kearen inguruan Larraulgo Udaltzarak 2008ko ekainaren 5ean hartutako erabakia, jakinaraziz erabaki horren berri herritarrari eman diotela.

Ikusirik ELeBIDEk Larraulgo Udalari bi gomendio egiten dizkiola, ondorengoak izanik:

- Jarraitu, bada, euskaraz lanean, baina itzuli gaztelaniara herritar horiei eman beharreko komunikazioak.
- Udalbatzak hartutako erabakia aldatzea, euskararen legeak ezartzen duena onartuz, Larraulgo biztanleen eskubideak bermatuak izan daitezen.

Gaia azterturik, Elebidek eginiko gomendioak artxibatzeke erabakia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botuak: 3
- Kontrako botuak: 0
- Abstentzioak: 2

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udaltzara honek, Elebidek eginiko gomendioak jasotzen dituen idatzia artxibatzeke erabakia hartzen du.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

MOZIOAK:

Ondoren Errezilgo Unibertsitateko Udalaren ANV taldeak Parke Eolikoa eta extra aintza kanterari buruz aurkeztutako mozioari buruzko erabakia aztertzen da (erabaki honi atxikitzen delarik).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Errezilgo Unibertsitateko Udalaren ANV Taldeak parke Eolikoa eta Extra aintza kanterari buruz aurkeztutako mozioari buruzko erabakia berrestea. Larraulgo Udalak bere babesaren ematen diolarik Errezilgo Unibertsitateko Udalak harturko erabakian, Gazumeko mendi gainan, Eusko Jaurlaritzak aurrikusita daukan, parke eolikoa ez dezan burutu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Errezilgo Unibertsitateko Udalarari ematea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA